

# BASA Burua

180. ALEA - 2025eko UZTAILA

## BASABURUKO UDAL BULETINA

ERREDAKZIOA: AMETZA



[www.basaburua.eus](http://www.basaburua.eus)  
udala@basaburua.eus  
948 50 30 35

### HIRIGINTZA PLAN BERRIA ONARTU DA

Behin behineko onartu da Basaburuko hirigintza plan berria. Orain, arkitektoak plan berriaren erredakzioa amaitua eta onartua, Nafarroako Gobernuari pasa zaio hark behin betiko onartu dezan. Aurreko plana 1983koa zen eta, horregatik, aurreko legealdian martxan jarri ziren hura berritzeko lanak. Plan berriak, gainera, herritarren parte-hartzea izan du, hainbat bilera ireki egin baitira eta alegazioak aurkezteko aukera izan baita. Plan zaharrean jasota ez zeuden hainbat berritasun jasoko dira. Adibidez, eraikin batzuetan pertsianak jartzeko aukera ahalbidetuko da; eta, solairu bakarreko etxeak egitea ere posible izanen da, hirigune tradizionaletik kanpo.

### NUEVO PLAN URBANÍSTICO

Se ha aprobado provisionalmente el nuevo Plan Urbanístico de Basaburua. Una vez el arquitecto ha incluido los últimos cambios en la redacción, esta se ha aprobado provisionalmente y enviada al Gobierno de Navarra, para que este formalice la aprobación definitiva. El nuevo plan ha contado con la participación de las vecinas y vecinos, que han tenido la oportunidad de participar en las reuniones abiertas; y, han podido presentar alegaciones. El nuevo plan recogerá posibilidades que no estaban en el antiguo, como, por ejemplo, la posibilidad de colocar persianas en algunos casos; y, la de construir casas de una sola planta fuera del centro histórico.



## EGUNeko ZENTROA, GERTUAGO

Sasturain etxeko lanak amaituta eta altzariak jarrita, eguneko zentroa hartuko duen gunea prest dago honezkero. Udalak sukaldea, jantokia eta egongela berriak ikusteko ate irekiak eta proiektua azaltzeko jardunaldia antolatu zuen, ekainaren 22an. Orain, zentroa martxan jartzeko eredu administratibo egokiena aztertzen ari da eta oraindik hilabete batzuk gehiago beharko dira ateaak zabaltzeko.

Hala ere, Udaletik mezu garrrantzitsu bat helarazi nahi dute: **zentroaren erabiltzaile izan nahi duenak eskatu dezala dependentzia maila lehenbailehen, urte erdi luzatu daitekeen prozesua baita.** Osasun Etxeko gizarte langilearen edo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen bitartez egin daiteke. Beste onura batzuen artean, balorazioa jasotzearekin egun osoko zerbitzuak erdia baina gutxiagoko kostua izan dezake. Basaburuko Udalak hamabi plazarekin jarri nahi du martxan zentroa.



## EL CENTRO DE DÍA CADA VEZ MÁS CERCA

Finalizadas las obras de la casa Sasturain, y con los muebles ya colocados, está listo el espacio que acogerá el nuevo centro de día de Basaburua. El 22 de junio se organizó una jornada de puertas abiertas para dar a conocer la nueva cocina, el nuevo comedor y el salón habilitados. Ahora, el Ayuntamiento está estudiando la mejor forma administrativa para gestionar el centro y, por lo tanto, habrá que esperar unos meses más para su apertura.

En cualquier caso, el Ayuntamiento quiere trasladar un mensaje importante: **aquellas personas que quieran entrar como usuarias deberán pedir la valoración de dependencia cuanto antes ya que es un proceso que puede alargarse durante medio año.** Se puede hacer a través de la trabajadora social del Centro de Salud o a través de la Mancomunidad de Servicios Sociales. Entre otras ventajas, la valoración de dependencia podría reducir a la mitad el coste del servicio de un día completo. El Ayuntamiento de Basaburua quiere poner en marcha el centro con unas doce plazas.

## GARBIGUNEA, BERRIZ GARBI

Jauntsaratsen kokatua dagoen Basaburuko garbigunea margotu eta txukun jarri du Mankomunitateak, izan ere, pintaketaz eta marrazkiz betea, zaila zen jakitea non bota behar zen hondakin mota bakoitza, hitzak ezin zirelako irakurri. Horregatik, Basaburuko Udaletik eskatu nahi dugu, mesedez, garbi mantentzea, horrela, besteak beste, hondakinak ongi banatzea bermatuko baitugu.

Garbigunea hondakin elektroniko txikiak eta isuri toxikoak izan ditzaketen objektuak botatzeko tokia da, batez ere. Hala nola, telefono mugikorrik, pilak, ibilgailuen bateriak edo tresna elektroniko txikiak; edo, ibilgailuen olioak, sukaldetako olioak, azidoak eta disolbatzaileak; ibilgailuen iragazkiak, erradiografiak eta inprimagailuen tonerrak ere garbigunean bota behar dira. Gogoratu tamaina handiko etxeko tresnak edo altzariak botatzeko 948 302 898 telefonora deitu edo mcp.es Iruñerriko Mankomunitateko webgunean trimitatu daitekeela. Emauseko Traperoek jasotzen dituzte horrelakoak.



## EL PUNTO LIMPIO HACE HONOR A SU NOMBRE

La Mancomunidad ha pintado y le ha dado un lavado de cara al Punto Limpio de Basaburua, situado en Jauntsarats. Antes, lleno de pintadas y dibujos que tapaban las letras, era difícil saber dónde había que depositar cada residuo. Así, desde el Ayuntamiento de Basaburua pedimos, por favor, que se cuide y se mantenga limpio, para su buen funcionamiento y garantizar que cada cosa se deposite dónde corresponde.

El punto limpio es sobre todo para echar residuos electrónicos pequeños y objetos que pueden provocar pequeños vertidos tóxicos. Nos referimos a teléfonos móviles, pilas, baterías de automóviles o aparatos electrónicos pequeños; también deberán llevarse al punto limpio el aceite usado de automóviles y de cocina, ácidos y disolventes; o filtros de automóviles, radiografías y tóneres de impresora. Recordad que para residuos de mayor tamaño como electrodomésticos o muebles hay que llamar al 948 302 898 o tramitarlo a través de la página web de la Mancomunidad mcp.es. Son los Traperos de Emaús quienes gestionan el servicio.



## ZERBITZU ANITZETARAKO HITZARMENA

Basaburuko Imozko eta Atezko udalek hitzarmena sinatu dute zerbitzu anitzeko langileen oporak eta bajak elkarren laguntzarekin betetzeko. Hitzarmen honen bidez, hiru udaletako zerbitzu anitzeko langileren bat oporetan edo bajan dagoenean, beste udaletako langileen artean beteko dituzte ezinbesteko, urjentziazko edo ustekabeko lanak. Gainera, segurtasunarenengatik bi pertsona behar diren lanetan elkarri lagunduko diote.

## CONVENIO SOBRE SERVICIOS MÚLTIPLES

Los Ayuntamientos de Basaburua, Imotz y Atetz han firmado un convenio para cubrir las vacaciones y bajas de las y los trabajadores de servicios múltiples. De esta manera, si alguno de ellos está de baja, los trabajadores del resto de Ayuntamientos cubrirán los trabajos imprescindibles, las urgencias o los imprevistos. Además, se ayudarán entre sí cuando tengan que realizar labores que por seguridad requieren de dos personas.

## BERDINTASUN SAIO PARTE-HARTZAILEA

Udal zerbitzu anitzetako langileei, Basaburuko udaleko udako langileei eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Babestutako Enpleguko langileei zuzenduriko trebakuntza saioa egin zen ekainaren 26an. Sei langile izan ziren eta saioa parte-hartzailea izan zen. Helburua, emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguru sentsibilizatzea izan zen eta, horretarako, oinarrizko kontzeptu eta ideiak landu ziren.

## SESIÓN PARTICIPATIVA SOBRE IGUALDAD

El 26 de junio se realizó una sesión sobre igualdad con los y las trabajadoras de servicios múltiples de los ayuntamientos, las trabajadoras de verano del Ayuntamiento de Basaburua y las y los contratados para el programa de empleo social protegido de la Mancomunidad de Servicios Sociales. Participaron seis personas en una sesión interactiva. El objetivo: sensibilizar sobre la igualdad entre mujeres y hombres. Para ello, se trabajaron los conceptos e ideas fundamentales.



### ABUZTU / AGOSTO

			1	2	3			
4	5	6	7	8	9	10		
11	12	13	14	15	16	17		
18	19	20	21	22	23	24		
25	26	27	28	29	30	31		

- JAUNTSARASKO PESTAK
- GARTZARONGO PESTAK
- BERUETEKO PESTAK
- ERBITIKO PESTAK

### IRAIL / SEPTIEMBRE

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

- IHABENGOKO PESTAK
- IGOAKO PESTAK
- ITSASOKO PESTAK